

**ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIKO LANTALDEEN JARDUERA
2022. URTEA**

BERDINTASUNA	ENPLEGUA	LANBIDE HEZIKETA	LAN-OSASUNA	GIZARTE POLITIKAK	INDUSTRIA
<p>11/03/2022:</p> <p>1. Gobernuaren 2025era arteko ekintza-plana, Soldata Arrakalaren Aurkako 2030erako Estrategiaren esparruan.</p> <p>2. Emakundek negozioziazio kolektiboaren esparruan bultzatutako azterlanen egoeraren berri ematea..</p> <p>3. an eta Enplegu Sailaren dirulaguntzaren agindua, sindikatu- eta enpresa-erakundeen prestakuntza- eta trebakuntza-ekintzak garatzeko, berdintasun-planak negoziatzeko.</p>	<p>2022/01/26:</p> <p>1. Euskal Enplegu Sistemaren Legea egiten hasteko agindua.</p> <p>30/03/2022:</p> <p>1. Euskal Enplegu Sistemaren Lege-aurreproiektua.</p> <p>2. Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren Kudeaketa Plana 2022-2024.</p> <p>18/05/2022:</p> <p>1. Enpleguari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua aurkeztea.</p> <p>27/07/2022:</p> <p>1. Enpleguaren Euskal Legea.</p> <p>2. Enplegurako erronka demografikoaren azterketarako jarduketak</p> <p>3. 2021 EEE 2030 jarraipena.</p> <p>4. 2021eko KL.Pren jarraipen-txostena.</p> <p>19/10/2022:</p> <p>1. Enpleguaren Euskal Legea. (AKORDIOA)</p> <p>16/11/2022:</p> <p>1. Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuaren hirugarren zirriborroa.</p>	<p>2022/03/30:</p> <p>1. Hezkuntza Sistemako Orientazio Plana.</p> <p>2. Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Koordinazio Organoa.</p> <p>3. Gaitasuna lan-esperientziaren bidez aitortzea.</p> <p>4. Etorkizuneko lanbide-profilak.</p> <p>2022/06/08:</p> <p>1. Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua.</p>	<p>Enpresa txiki eta ertainetako prebentzio-kulturarako Euskal Behatokiaren Jarraipen Batzorde Mistoa:</p> <p>2022/02/10 (2022ko proiektuak aurkeztea).</p> <p>2022/03/10 (2022ko ekintzak onartzea).</p>	<p>2022/06/15:</p> <p>1. Kontziliazio-planak egiteko laguntzen oinarriak.</p> <p>2. Zainketen Itun Soziala.</p> <p>16/11/2022:</p> <p>1. Zainketen aldeko Itun Sozialaren oinarriei buruzko aurreakordioa.</p>	<p>2022/06/08:</p> <p>1. Industriadako 4.0 Bidezko Trantsizioarako Euskal Itun Soziala garatzeko ekintzak identifikatzea.</p>
<p>22/09/14:</p> <p>1. Hurrengo urratsak soldata-arrakalaren aurkako estrategiari dagokionez.</p> <p>2. Genero-berdintasunak negozioziazio kolektiboan duen eraginari buruz Emakundek bultzatutako lanaren egoera, Olga Fotinopulosek egina.</p> <p>3. LHKren eta Emakunderen arteko hitzarmen-proiektuaren egoera.</p>					

ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIKO LANTALDEEN JARDUERA

2022. URTEA

ENPLEGUA eta LANBIDE HEZIKETA baterako bilera

2022/10/19

1. Langileentzako prestakuntza-eredu propio baterako oinarriak. (AKORDIOA)

KOORDINAZIO TALDEA

2022/01/26

1. 2022rako lan-plana.
2. Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren urteko lehen bilera.

2022/03/07

1. 2022ko lan-plana

2022/04/01

1. 2022rako lan-plana garatzea (parte-hartze instituzionalari buruzko legearen lantaldeak eta aldi baterako ezintasun-prozesuetan eragiten duten faktoreak).

2022/04/26

1. Etxebizitzaren Itun Soziala aurkeztea.
2. Hiru lantalde berri eratzea.

2022/05/11

1. Eusko Legebiltzarak apirilaren 8an egindako osoko bilkuran hartutako erabakia (41. puntua. Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientetan dauden pertsonentzako osagarriak).

ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIKO LANTALDEEN JARDUJERA
2022. URTEA

LAN IKUSKARITZAREN AHOIKU BATZORDEA

2022/06/15

1. Aurkezpena: Laneko Ikuskaritzaren 1. Aholku Batzordea.
2. 2021eko emaitzak.
3. 2022ko kanpaina.

EZINTASUN IRAGANKORRAGATIKO BAJA-PROZESUAK AZTERTZEKO TALDE TEKNIKOA

2022/07/27


1. Talde teknikoa eratzea.

2022/09/15

2022/10/20

2022/11/17

2022/12/22



2023ko ELKARRIZKETA SOZIALEKO MAHAIAREN LAN PLANA

SARRERA

Urteko lan-plana egitea eta onartzea da Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren lehen zeregina.


Ezin bestela izan, 2023rako lan-planaren definizioa jarraitutasunaren eta koherentziaren ikuspegitik lantzen da, abian jarri zenetik igarotako lau urteetan elkarrizketa sozialaren esparruan egindako jarduerarekiko.

Horrek azaltzen du lan-plan honetan jasotzen diren ekintza batzuk 2022ko aurreko planaren baldintza berberetan edo antzekoetan mantentzea, horiei lotutako jarduerak gaur egun ere garatzen direlako, eta beste batzuk birformulatzea aurretiazko akordioen jarraipen espezifiko egiteko eta orain arte lortutako emaitzak finkatuko dituzten ekintza osagarriek ekiteko. Hala gertatzen da, adibidez, prestakuntza eredu propio baten oinarri buruzko akordioen zati handi batekin, edo 4.0 industriara bidezko trantsizioa bermatzeko ekintzekin, edo berdintasunaren arloan hartutako konpromisoekin, bereziki proiektu pilotu bat inplementatzearekin, zeinaren oinarriak aurrez zehaztuta baitaude, berdintasun-planen negoziatio-batzordeei laguntzeko tresnak eta egiturak garatzeko.

Aldi berean, 2023ko lan-planean kendu egin dira unean uneko izaeragatik gauzatutzat jo daitezkeen ekintza batzuk, hala nola Enpleguari buruzko Euskal Legearen proiektua onartu aurreko lanak, edo irismen orokorreko beste kudeaketa-tresna batzuetan sartuta geratu direnak, hala nola laneko osasunaren arloko prebentzio-jarduera sustatzea, orain enpresa txiki eta ertainetako prebentzio-kulturaren euskal behatokiaren berezko helburu gisa hartuta.

Era berean, elkarrizketa sozialaren izaera dinamikoaren ondorioz, zein, logikoa denez, gobernuaren jarduerarekin koherentziaz eta paraleloki garatu behar baita izaera soziolaboraleko politika publikoak hitzartzeko tresna nagusi gisa finkatzeko, 2023rako lan-planak ekintza eta ekimen berriak biltzen ditu. Ildo horretan, adibidez, enplegu-taldearen ekintza espezifiko gisa sartzen da Gobernuak egindako Emantzipazio Estrategiaren esparruan gazteen enpleguaren kalitatearen aldeko itun baterako balizko oinarri komun azterketa, edo 50 urtetik gorako langileen okupazio-tasak handitzera bideratutako programen eta ekintzen diseinuan gizarte-eragileek parte hartzearekin eta enpresetako adinaren kudeaketarekin lotutako alderdien gizarte-elkarrizketaren bidezko tratamendua.

Ildo beretik, eta jakin badakigunez bilakaera demografikoa dela gure euskal gizartearen eta, bereziki, Europako eta, oro har, mendebaldeko gizartearen funtsezko erronketako bat, eta gai horren inguruan epe labur eta ertainean egin beharko diren politiken eta erabakien zeharkako izaera aitortuta, Eusko Legebiltzarrak 2022ko maiatzean egindako osoko bilkura monografikoan onartutako 74 ebazpenek eta 2030erako Euskal Estrategiak agerian uzten



ELKARRIZKETA
SOZIALERAKO MAHAIA
MESA DE
DIÁLOGO SOCIAL

duten bezala, Gizarte Elkarrizketarako Mahaia lantalde berri bat sortzea erabaki du, estrategia global horren esparruan eta beste gogoeta-arlo eta lan-esparru batzuekin koherentziaz eta koordinatuta, erronka demografikoari lotutako ondorio nagusiak aztertzeko, enpleguaren eta lan-harremanen ikuspegitik.

Era berean, jasota utzi behar da 2023an 2022an sortu ziren bi taldeetan hasitako jardueri eusteko erabakia. Bai eduki funtsean teknikoa duten lanei dagokienez, hala nola aldi baterako ezintasunean eragiten duten faktoreak aztertzeko taldearekin gertatzen den bezala, bai EAEn parte-hartze instituzionalari buruzko lege berria diseinatzeko oinarri partekatuak lantzerantz bideratutako lanei dagokienez. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren Aholku Batzordearen jardura ere egonkorra izango da 2023an eta ondorengo ondoko aldietan. 2023rako lan-plana formalki onartu baino lehen, Elkarrizketa Sozialerako Mahaia erabaki du, halaber, gizarte-politika lantaldean lortutako akordioa baliozkotzea, zaintzaren aldeko herrialde-itun bati dagokionez. Mahai orokorrak beren-beregi onartu duen akordio hori bilera honetako aktaren eranskin gisa erantsi da.

Azkenik, Mahaiko kideek, bilera hau dela eta, berretsi nahi dute beren babes esplizitu eta zalantzarik gabea ematen diotela elkarrizketa sozialari, bizikidetzaren sozial eta politikoko eredu baten funtsezko pieza gisa. Eredu horren helburu nagusietako bat da sorkuntza iraunkorra eta aberastasunaren banaketa orekatua, eta, beraz, ongizatea herritar guztien artean zabaltzea eta gizarte-kohesioa sendotzea.


Adierazpen horrek Mahaiko kideen etengabeko jarrera adierazten du, baina bereziki egokia da gaur egungoa bezalako une batean, non zalantzan jartzen ari den, eta zenbait jarreratik esplizituki ukatzen ez dituen bai hitzarmen-eredua, bai praktika demokratikoa, bai gizarte-eragile adierazgarrien dimentsio instituzionala, eta, halaber, gizarte-elkarrizketa ahalbidetzen duten alderdi biko eta hiruko esparruen definizioan eta garapenean duten zeregin nagusia.

Ondorioz, Elkarrizketa Sozialerako Mahaia, 2023ko apirilaren 19ko bilkuran,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. - Gizarte Politiken taldean lortutako akordioa baliozkotzea eta berriaz osatzea, Elkarrizketa Sozialerako Mahaia akordio gisa, zaintzaren aldeko herrialde-itun baten inguruan. Erabaki hori bilera honetako aktaren eranskin gisa erantsi da.

BIGARRENA. - ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAIA 2023rako LAN PLANA onartzea, honela:




ENPLEGUA

2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren jarraipena.
Etokizuneko Enpleguaren Euskal Legea garatzea: lege hori garatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-elementuak eta tresnak identifikatzea.
Lan Berriak programaren esparruan enplegu-nitxo eta -aukera berriak identifikatzen jarraitzea.
2022ko azaroaren 22ko Akordioaren jarraipena, langileentzako prestakuntza-eredu propio baterako oinarriei buruzkoa, Lanbide Heziketako lantaldearekin batera.
50 urtetik gorako langileentzako programa bereziekin lotutako jarduerak diseinatzeko oinarriak. Enpresetan adinaren kudeaketaren eta belaunaldi-erreleboaren problematika aztertzea.
Lanpostuetan gaitasun profesionalak hobetzeko sistema bat ezartzeko baldintzak.
Gazte Enpleguaren Kalitatearen aldeko Ituna, gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategiaren esparruan.

LANEKO OSASUNA

Prebentzioaren kulturaren Euskal Behatokiaren jarraipena enpresa txiki eta ertainetan.
Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2021-2026 Euskal Estrategiaren jarraipena



LANBIDE HEZIKETA

Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Sistema garatzeko 2021eko irailaren 14an lortutako akordioaren jarraipena.

2022ko azaroaren 22ko Akordioaren jarraipena, langileentzako prestakuntza-eredu propio baterako oinarriei buruzkoa, enplegu-lantaldearekin batera.

Hezkuntzaren arloko orientazioari buruzko oinarri-akordioa.

INDUSTRIA

4.0 industriarako Trantsizio Justurako Proiektutik eratorritako ekintzak garatzea eta ezartzea.

BERDINTASUNA

Berdintasun Planak garatzeko 2021eko irailaren 14ko Akordioan jasotako ekintzen jarraipena.


Enpresetan sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloak ezartzen laguntzeko egin daitezkeen ekintzak aztertzea.

Emakundeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VIII. Planaren jarraipena.

Soldata-arrakalaren aurkako plan operatiboaren jarraipena.

GIZARTE POLITIKAK

Kontziliazioaren arloko enpresa arduradunen akreditazioa emateko irizpideak.



ELKARRIZKETA
SOZIALERAKO MAHAIA
MESA DE
DIÁLOGO SOCIAL

Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa. Kontrastea.

Zaintzen antolaketaren egungo egoera aztertzea (2023ko apirilaren 19an onartutako zainketen aldeko etorkizuneko herri-itunaren oinarrien akordioaren arabera).

ERRONKA DEMOGRAFIKOA

2030erako Euskal Estrategiaren esparruan elkarrizketa sozialetik garatu beharreko jarduerak identifikatzea, baita orain arte ezarritako ekintzen jarraipena eta azterketa egitea ere.

BESTE LANTALDE ETA LAN-BATZORDE BATZUK 2023an

Parte-hartze Instituzionaleko Taldea: parte-hartze instituzionalari buruzko lege bat egiteko oinarriak.

Aldi baterako ezintasunaren azterketari buruzko talde teknikoa: kontingentzia arruntetik nahiz profesionaletatik eratorritako prozesu horietan eragiten duten faktoreen azterketa, pertsonen osasunari buruzko ikuspegi integral batetik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren Aholku Batzordea: Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren jardueren jarraipena.

Eusko Jaularitzaren partez:



Bigarren Lehendakariordea eta Lan
eta Enpleguko Sailburua
Idoia Mendia Cueva



Ekonomiaren Garapen,
Jasangarritasun eta Ingurumeneko
sailburua
Arantxa Tapia Otaegi




Hezkuntzako sailburua
Jokin Bildarratz Sorron



Berdintasun, Justizia eta Gizarte
Politiketako sailburua
Nerea Melgosa Vega



Confebasken partez:
Isabel Busto Pozuelo



CC.OO. – Euskadiren
partez:
Loli Garcia García



Por UGT – Euskadi:
Raúl Arza Vélez